

hasta el presente ha visto pasar al panteon de la historia. ¿Y despues? ¡Oh! Déjeme usted corregir al famoso cortesano:

*Forse lei canterà con miquior plettro.*

Una cosa voy á exigir á usted para concluir: es que no tarde usted en darme motivos para poderle dirigir otras cartas peores si calle que la presente.

Entretanto reciba usted un apretón de manos de

N. L.

## LARROSA.

<p>Aur chiki batek, zentzurik gabe,<sup>1</sup>          Amari zion galdetzen:          —¿Zergatik, ama, dira larrosak          Arantz zorrotzez jantzitzen?          ¿Zergatik dute ikutzen diyen          Esku pollita urratzen?          Izanik berak añ gozatsuak          ¿Nola dirade miñazten?          Ez nuen uste, lore-tartean          Arantzik zala arkitzen.—</p> <p style="text-align: center;">—————</p> <p>—Seme maitea—eranzun zion          Amak laztan bat emanik;—          Jakiñ ezazu gauza galkorrak          Urrez daudela beterik.          Gizonak oso galdu ditezen</p>	<p>Beren ichurak zurturik;          Orregatikan daude larrosak          Usai-eztizaz jantzirik,          Berak artzera datorren aurrak,          Izan ez dezan beldurrik.</p> <p style="text-align: center;">—————</p> <p>¡Ai! biyotzeko seme maitea!          ¡Nere begiyen argiya!          ¡Biraldu zazu zugandik beti          Charkeri lorez jantziya!          Askotan dezu, larros-antzean          Arkiko arantz mintiya;          Aldendu zaite beragandikan          Balitz bezala piztiya,          Gal-etzaitean, ichura utzaz          Zoraturikan guztiya.—</p>
---	---

ECHEGARAY-KO KARMELO-K.

Santander-en Lotazilla-ren 23.<sup>an</sup> 1882.<sup>an</sup>

(1) *Zentzurik gabe*= Con inocencia.